


BERTS - SAI KLINIK A



EHUko 1 kreditu ikasleentzat

Non:

**Goiko Lastola Sagardotegia
Ereñozu auzoa 89, Hernani**

Noiz:

**apirilaren 8an, ostirala,
18:30ean**

Norentzat:

**osasun arloarekin erlazioa
duen edonorentzat**

Izen-ematea:

apirilaren 1a baino lehen

OSID.ZBGIZABALIABIDEAK.EUSKARA@osakidetza.eus

OINARRIAK:

1. Txapelketa taldeka egingo da. Talde bakoitzak hiru pertsona izango ditu.
2. Parte hartzaile osasun arloarekin erlazioa duen edonor izan daiteke (zeladore, mediku, administrari, erizain...). Aurten ere, saiakera berezia egingo dugu taldeak eta asmatu beharreko hitzak horretara moldatzeko.
3. Izena emateko azken eguna **APIRILAREN 1a** izango da.
4. Izena beti banaka emango da. Ikasleen kasuan ikasketa-maila eta ikastokia adieraziko dira. Kontakturako helbide elektronikoko bat eta telefono bat beharrezkoak dira.
5. Taldeak zozketaz osatuko dira.
6. Ikusle bezala bertaratzeko aukera ere badago. Hala nahi izanez gero, izena ematerakoan jakinarazi beharko da.
7. Saioa hasi aurretik afariaren balioa, 35 € emango ditu pertsona bakoitzak.
8. Taldeek zenbaki bana izango dute, hots, 1. taldea, 2. taldea etab. Taldeak hala erabakiz gero, izena ere jar dakioko.
9. Txapelketa kanporaketa sistema bidez jokatu da. Bertsolariek kanporaketa saio bakoitzean bertso-kopuru jakin bat kantatuko dute eta taldeek idatziz bertso bakoitzak aipatzen duen diagnostikoa edo hitza asmatu behar dute. Denak asmatu ezean taldea kaleratua izango da. Bertsoak ez dira inoiz bitan kantatuko.
10. Kanporaketen bidez bi talde pasako dira finalera.
11. Sailkatutako bi taldeek finala jokatu dute. Horretarako, talde bakoitzak lau bertsoari dagokien diagnostikoa edo hitza asmatu beharko du, bertsoan diagnostikoa asmatzeko nahiko datu egongo delarik. Asmatuz gero bi puntu lortuko dituzte, eta asmatu ezean beste taldeak izango du aukera errebote bidez puntu bat lortzeko. Oraingoan ere bertsoa behin bakarrik kantatuko da. Erantzuna TALDEKO BOZERAMALEAK (beti pertsona berak) emango du. Erantzun bakarra onartuko da taldeko.
12. Kanporaketatan zein finalean berdinketa eman ez gero epaimahaiak erabakiko du nola hautsi berdinketa.
13. Finalera iristen diren bi taldeek saria jasoko dute.
14. Epaimahai bat izango da txapelketa gidatzeko.
15. Epaimahaiak honako oinarri hauek aldatzeko eskubidea du, txapelketan antolaketa-arazoak bideratzeko behar izanez gero.
16. Txapelketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar ezinbestean. Hala ere, beti egongo da kexatzeko eskubidea.

APUNTATZEKO:

OSID.ZBGIZABALIABIDEAK.EUSKARA@OSAKIDETZA.EUS